


# 45. EUSKAL HERRIKO DANTZA txapelketa

2021

SEGURA  Urriak 16

# 45.

EUSKAL  
HERRIKO  
DANTZA  
txapelketa



## BARATZE PILOTALEKUAN

18:00etan FINALA

## ATSEDENALDIAN

genEroa dantza ikuskizuna

Kimua Dantza Kolektiboaren eskutik.

## Antolatzailea



SEGURAKO UDALA

## Kolaboratzaileak



## Babesleak



# 45. EUSKAL HERRIKO DANTZA txapelketa

# 45. EUSKAL HERRIKO DANTZA txapelketa

2021eko urriaren 16an jokatu da aurten Euskal Herriko 45. Dantza Suelto Txapelketa. Bertan Euskal Herriko dantza-bikote hoberenek parte hartuko dute, eta gure lurralde ezberdinetako arin-arinez eta fandangoaz gozatzeko aukera ezin hobea izango du ikusleak. Txapelketaren antolatzaile den Segurako Udalak ikuskizun paregabe honetara bertaratzeko gonbitea luzatzen dizu. Beraz, euskal folklorea maite duenak zita du Seguran, urriaren 16an.

## ONARRIAK

1. Txapelketa urriaren 16an ospatuko da, Segurako Baratze pilotalekuan, arratsaldeko 18:00etan. Dantza-saioa Euskal Telebistak emango du.
2. Fandangoa eta Arin-Arina ederki dantzatzeko dakien edozein bikotek parte har dezake txapelketan, ezinbestekoa izanik bikotekide batek, bederen, 16 urte beteta izatea.
3. Dantza-bikote bakoitzak Euskal Herriko herri bakar bat ordezkatzeko du. Ez litzateke arazorik sortuko udalerriri berbera ordezkatzeko duen bikote bat baino gehiago agertuko balitz.
4. Hamabi bikotek baino gehiagok izena emanaz gero, finala aurretik kanporaketa saio berezia burutuko litzateke; urriaren 15ean, arratsaldeko 19:30ean. Hamabi bikote sailkatuko lirateke kanporaketan. Horien artean herrialde guztiak ordezkaturik ez baleude, sailkatu ez den herrialdeetako aurreneko bikotea ere finalean sartuko litzateke.
5. Bikoteak zenbatgarren postuan dantzatzeko duten zehazteko, ordena-zozketa burutuko da alde aurretik Gipuzkoako EDBn.
6. FANDANGO txistuz ala albokaz dantzatzeko aukera izango dute bikoteek, ARIN-ARINA, aldiz, trikitiak soilik.
7. Dantzariak euskal tradiziozko jantzia eramango dute soinean.
8. Dantza-sueltoan adituak diren bost pertsonak eta bi jantzi adituk osatuko dute epai-mahaia.

9. Epai-lan eta erabakiak GEDBko dantza-suelto batzordean ezarrita dauden irizpideetan oinarrituko dira eta bertako dantza solteko web-orrian kontsulta daitezke: <https://sites.google.com/view/dsueltoa2021/dokumentuak/txapelketen-araudia>
10. Izen-ematea: **(Izen-abizenak, telefonoa, helbidea, ordezkatzeko duten herria, jantziak deskribapena, dantza eskola edo irakaslea, dantza munduan daramaten denbora eta Seguran zenbat aldiz parte hartu duten)**. Txapelketan parte hartu nahi duten bikoteek Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrean eman behar dute izena, <https://sites.google.com/view/dsueltoa2021/egutegia/urriko-txapelketak/urriak-16-segura> webgunean dagoen formularioa betez. Apuntatzeko epea **2021eko IRAILAREN 23an** eguerdiko ordu biak aurretik. Xehetasun gehiagorako G.E.D.B. edo Segurako Udaletxera 943801006 telefonora deitu edo [kultura@segura.eus](mailto:kultura@segura.eus) helbidera zuzendu.
11. Txapelketan parte hartze berak oinarrian guztizko onespina adierazten du. Eta hauen inguruko zalantzarik sortuz gero lehiaketaren antolatzaileei, Segurako udalari alegia, begokio auzia ebatzea.

## OHARRAK

1. Dantza txapelketako nahiz jantziak sariketarako ekitaldietan parte hartzen duten bikoteek ANTOLATZAILEEN esku jartzen dituzte euren eskubideak, bai ekitaldion entzun ikusizko grabazioa egin ahal izateko eta baita grabazioen telebista emanaldi publikorako ere, emanaldi kopuruaren mugarik gabe, edozein telebista modurako (doaneko edo ordaindua, kopetua edo gabea, programazio finko ala aukerakoduna, telebista digitala, eta abar.) eta zernahi emisio edo transmisio sistematarako (kablezko, satelitezko, uhin hertziarretakoa nahiz bideo elkar osagarrituz burututakoa). Eskubide hauen lagapena eskusibaz egiten da mundu osorako, hirugarren bati eskusibaz lagatzeko ahalmenarekin eta legeak aurreikusitako duten denboraldi guztirako.
2. Finalerako sarrerak <https://bibe.me> webgunean salgai jarriko dira urriaren 1etik aurrera.

## SARIAK

### 1. SARIA: SEGURAKO UDALAREN SARI NAGUSIA:

- **Aitor Ruiz De Eginoren eskultura.** Sari hau bikote txapelkunak ordezkatzeko duen udaletxera eramango da, eta bertan egongo da hurrengo txapelketa ospatu arte. Udalerriri bat eskulturaren behin-betiko jabe egingo da bost urteren buruan herria ordezkatu duen bikote berak hiru aldiz irabaziko balu txapelketa.
  - **Txapela eta lepokoa**
  - **800 euro eta oroigarria**
  - **Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrak emandako trofeoa**
2. **SARIA:** 600 euro eta oroigarria.
  3. **SARIA:** 500 euro eta oroigarria.

### BESTE SARIAK:

- **GUILLERMO AREIZAGA SARI BEREZIA (dantza txapelketaren sortzaile eta sustatzaile izan zenaren omenez):** Lehendabiziko aldiz aurkeztu diren bikoteen artean ongien sailkatu denari.
- **JANTZIEN saria:** 150 euro (Finalean bakarrik).
- **HERRIKO BIKOTE ONENARI saria:** oroigarria.
- **LURRALDEETAKO BIKOTE ONENEI saria:** lurralde bakoitzeko foru aldundiak emanda.
- **Lehenengo hiru postuetan sartu ez direnentzat dieta:** 200 euro bikote bakoitzari.
- **Kanporaketan parte hartu eta Finalerako sailkatuak izan EZ diren bikoteentzat dieta:** 100 euro bikote bakoitzari.